

2025eko abenduaren 19an 15. zenbakia

Neguko oporrak

Gaur 12:30ean Ikastolako ikasleek neguko oporrak hasiko dituzte **urtarrilaren 8a** bitarte. Haur Eskolako haurrek berriz, **urtarrilaren 7a** bitarte.



Bazkideen txokoa

Udarregi Ikastolak bazkideen artean zozketatutako ezti poteen irabazleak honakoak izan dira:



Astiazaran Tames
familia



Oihana Apezetxea



Gartzia Goia
familia



Begoña Izeta



Giraldo Blandon
familia

Jangela zerbitzua

Jangelako erabiltzaileek urtarilean honako [menua](#) izango dute. Menu bereziak [hemen](#) ikusi ditzakezue.



Gabonetako aholkuak

Hitz Aho guraso elkartearen baitan sortu genuen Altxa Burua Usurbil lantaldea eta azken bileran kezkatzen gaituen gai batzuen inguruan lanketa bat egiten hasi gara.

Gabonak ate joka ditugula eta Altxa Burua lantaldetik pantailak oparitu ordeztu, zuen seme-alabei esperientziak partekatzerara gonbitea egiten dizuegu.

[Ikusi bideoa.](#)

Aldez aurretik eskerrik asko,
Altxa Burua Usurbil

HAUR HEZKUNTZA

Gaurko antolaketa

Gaur 11:45etan Olentzero eta Mari Domingiri abesteko asmoa dugu. Euriaren ondorioz, ikastolako frontoian abestuko dugu.



Baso eskola

Oporren bueltan, baso eskolako lehenengo saioa:

HH5: Urtarrilaren 14ean

HH4: Urtarrilaren 16ean



Material-kobrantza

Urtarrilaren 16an, hileko erreziboarekin batera, HHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **40 €** izango da.



LEHEN HEZKUNTZA

Ez dago berrik.

BIGARREN HEZKUNTZA

Atzerriko beka deialdia

Jakinarazten da gaurko egunez argitaratu dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasleak atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diru lagundutza [agindua](#). Aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 5ean.

